

Brillo xaboia kaxa

Artea irakatsi daiteke?

Egileek artea irakatsi daitekela adierazten

dute argi eta garbi bere idatziaren lehenengo

lerroan eta ondoren teknika arrunta

bezala entseia daitekela erakusten saiatzen dira.

Artea irakats daitekeela pentsatzen dugu. Ikasketa gai bezala hartu ezkerer erabili, ulertu eta portaera gisa eragin daitekeen gertaera delakoan gaude. Ez dugu uste gauza iluna dela kontsideratzetik hastea komeni denik. Hau dela eta, hemen, teknika arrunta bailitza entseia litekeen giza ekimen gisa ikusten saiatuko gara.

Artea erabil, uler eta ikas daitekeela esaterakoan, berau, nahiz prozesu, nahiz objektu gisa, neurri batean argitu nahia legoke. Eta arte irakasketa bada helburu, arte praktikak dakarrena sistematizatu beharko litzateke. Badakigu, dena den, artea konplexua dela: beste hainbat jakintza alor bezala sistematizazio zailkoa da. Arte praktika ez litzateke egonkorra. Artea etengabeko mugimenduan eta berrantolaketa prozesuan dabilen giza ekoizkin bezala uler liteke, eta ezegonkortasun hori bere ezaugarri nabari bat izango litzateke.

Artea modu ezberdinetan aurkezten zaigu: errito eta mito eremuan integratuta, adierazpenerako esparru pribilejiatu gisa, gizartearen ordena funtzional eta errepresore izan daitekeenetik at kokatutako espazio bezala, e.a. Idealismoak aparte, artearen efektu eta emaitzak ditugu gustuko, beharrezko edo

aztergai. Arte deritzogun horretatik era bateko nahiz besteko emaitzetatik elikatzen gara (erromantikoak batzuetan, hausle edo eta narratiboak beste batzuetan...).

Gaur egun, artearen hainbeste joan etorri ezagutu eta gero, ez ginateke heterogeneoa eta afektu eta pertzeptu¹ sortzaile izan behar duenik baino gehiago esatera ausartuko. Zentzu honetan, artearen ez homogeneo izate eta pertzeptu eta afektu eraikitzaile izate hori, balizko artistak kontuan hartu beharko lukeen gutxieneko helburutzat har daiteke. Geuk, horrelako ezaugarrietan aberats litzatekeen eraikinak sor daitezen eragiteko, arte agerrera mekanismo bi aukeratuko genituzke. Gai hauek tresna kontzeptual gisa erabiltzeak, eta beste batzuk baino egoki ala desagokiagoak izatea alde batera utziz, artea idealismoaren eta gune topikoen gehiegikerietatik babesteko baliozgarria litzaziguke.

SIGNIFIKANTZA ETA BITARTE-ETENA Barthesek dioenez signifikantza izendatutako gertaera artearen ezaugarri berezia da; zeinu izaerarekin baino gehiago zeinuaren gainezkatzearekin du zerikusia².

Haren hitzetan, zeinua errepikatzen den zerbait da. Errepikapenaren bidez gertatuko litzateke ezagutzea eta, ondorioz, ulertzea eta ikastea; zeinuak esanahia izango luke. Eta hizkuntza zeinuen ordena litzateke, esanahidun zeinuen ordena. Artea, berriz, ez litzateke zeinu unitatean oinarrituko. Esanahiaren ordena zehatzarekin baino gehiago, signifikantzarekin zerikusia izango luke. Artelanean oso garrantzitsua litzateke errepikapenean oinarritua ez dagoen jatorrizko esperientziak ohartzeari. Alegia, arte objektua begirada, irribarre edo garrasia diren moduko osagaiez osatua ikustea³. Hau da, esanahi ulergarri eta zehatzetan baino gehiago, horiek gainezkatuko litzatekeen esparru zentzudun batean kokatzen gaituzten ezaugarriez ohartzeari. Arteak lengoaiaren zeharka mintzatzearekin zerikusia izango luke (lengoaiaren bidez mintzatzearekin



Gaur egungo testuinguruan, altzaria bailitzan tailatutako kaskezur indonesiarraren eta Cezanneren koadroan irudikatutako beste kaskezur horien arteko harremana eredu- zko egiten zaigu. Ereduzkoa, bi kultura ezberdinetakoak izanik, arte funtzioan sortuak baitira biak. Biek behar sinboliko bat izango bailukete iturburu. Bietan izugarrikeria irudikatzen zaila egiten zaigunaren aurkezpen eta onarpena daudelako. Kasu batean, kaskezur tailaketa da prozedura; bestean, heriotza pintura irudi gordintzat hartzea. Bataren izaera interbalikoa, heriotzaren dekorazio itxuran datza eta bestearena, dekorazioaren heriotza edukian. Bitartean, bizitza eta heriotza aurrez aurre usaintzarekin zerikusia duen jarrera bat.

baino gehiago). Signifikantzak zentzua helarazteko artearen berezko modu bat erakutsiko liguke. Bestalde, zentzua ez da iraunkor eta objektiboa den gauza bat. Zentzua garaian garai aldatzen da, gizartearen eraikitzen den zerbait da, harreman eta elkarketa gune da. Zentzu sortze prozesuari, beraz, ikuspuntu zabal batetik begiratu beharra dago. Zentzuaren, artearen eta munduaren arteko elkarguneetan bilatu beharra dago.

Artea munduan ulertze horrek, erlazio izaeran datzan ikuspegiak, lengoia isolatu eta formalistegi baten ikuspegitik aldentzen lagunduko liguke⁴. Irakaskuntzak, artearen alderdi formalez arduratzerakoan, helburutzat beste zerbait hartuz jokatu behar du. Artetzat jotzen dugunak, zentzu sistema zabal baten parte denez, ezaugarri bereizleak baino gehiago ukitze puntuak bilatzen ditu munduaren beste osagai batzuekin. Azken finean, arte ibilbideak ukitze puntu horiek ere berezkoak dituela erakusten digu. Eta, hori dela eta, ukitze puntuak baino gehiago ezaugarri amankomunak direla pentsa genezake.

Gauzak honela, gure ustetan prozedura artistiko propio bat ez dagoela esan beharko

litzateke. Eta orduan artelana edonon eta edozeren bidez sor daitekeen zerbait izan litekeela ere. Ez legoke erabilitako prozeduran, baizik eta haren eraginean. Eta eragin hori pertzepzioaren jarraikortasunean eten bat ezartzeko duen ahalmenean neur daiteke.

Artearen ezaugarri hori, bitarte-eten izaera, gure berezko izaerarekin pareka daiteke. Nahiz eta errealitate egonkor-iraunkor bat eredu daukagun, zenbait gertaera uneak iheskor, ezegonkor egiten zaizkigu (heriotza, eromena, erotismoa, umorea...). Arteak gertaera une horiekin harremanetan egotearekin zerikusia du. Hainbat lengoia sinbolikok bezala (erlijio, mito eta abar), errealitate deitzen diogun irudikapen espazio arrunt horretatik kanpo sumatzen ditugun gertaerak ulertu nahiarekin zerikusia du. Horregatik dago artea irudikapen espazio arrotz, alderantzizko eta diferente izatearekin erlazio-natuta: irudikapenetik at gera daitekeen oro du helburu. Artea bestelakoa sentitzean dago oinarrituta; errealitate deiturikoan bitarteak irekitzearekin erlazio-natuta⁵.

Arte prozedura edozeinek, ulertuz doan ahala, irudikapen bihurtzeko joera gero eta handiagoa du. Artea irudikapen alorreko

Zentzua EZ DA IRAUNKOR ETA OBJEKTIBOA DEN GAUZA BAT. ZENTZUA **garaian** GARAI ALDATZEN DA, GIZARTEAN ERAIKITZEN DEN ZERBAIT DA, HARREMAN ETA **elkarketa** GUNE DA.



Artea negoziaketa eta bitarte irekitze gunean kokatzen badugu, ariketan espermentatu behar den tentsioa *Brillo* xaboi kaxa baten eta eskultura baten artekoa bezalakoa dela erakutsi nahian ariko ginateke.

ARTEAK GIZAKION IRUDIKAPENAK
ETA **sinboloak** BERRITZEKO BALIO
IZAN DU. HAIEN IRAUNKORTASUNEAN
ETENALDIAK **sortzeko** BALIO
IZAN DU ETA, BERE NEURRIAN,
oraindik ere BALIO DU.

topikoak gainditzeko baliagarri hartzen dugun heinean, egoera posible horretatik urrundu beharko litzateke. Horregatik esaten dugu arteak berezko eta betiko den prozedurarik ez duela. Are gehiago, arte teknika prozedurak asmatzean datzala esan genezake. Arte teknika asmatze prozesu hori testuinguruarekiko harremanetatik letorke (arteak giza beharrak bereganatzen ditu).

Adibidez, bitarte eredu bezala, Alfred Hitchcocken film bateko eszena bat har genezake⁶. Bertan, irudikatzen zaila den egoera emozional baten agerpen teknikoak suma daiteke. Eszenaren helburua ikuslearen kanpotiko pertzepzioa aldatu eta ikuslea hiltzailearen lekuan kokatzea da.

Filmeko neska protagonista, bortxatu nahi izan duen gizona akabatu eta gero, etxera itzultzen denean hasten da eszena. Bertan, familiarekin batera gosaltzen ari delarik, kanpotik etorritako emakume batek labanaz egindako hilketa aipatzen du. Une horretatik aurrera, neskaren aurpegia izango da eszenaren irudi bakarra. Eta entzungo duena, labana hitza izan ezik, zurrumurrur ulertezin bat baino ez da izango. Labana hitzak eta bere errepikapenak neska urduri jartzen dute.

Hitzak zurrumurrur bilakatzearen errekursoaren bitartez, zinema ikusi eta entzuteko ohizko modu bat sahiesten da, pertzepzio aldaketa bat bilatuz. Hau da, egiantzekoa ez den eszena honen bidez, bitarte bat sortua legokeela esan genezake: artearen eten beharrekin zerikusia duen pertzeptu bat. Nahi eta behar batzuen arabera, prozedura

berri bat asmatzen du, zinema baliabideen eremua zabaltzen duelarik. Momentu horretatik aurrera prozedura hori "berezko baliabideetako" bat bihurtuko da. Edonork erabil dezake baina, behar izan ezker, behin eta berriro alda daiteke. Artistak horrela jotzen du.

ARTE TEKNIKA ETA METODOLOGIA
Orokorrean, arte ederreko ikasketak arte ekimena eta ulermena nolakoak diren erakusteko dira. Zentzu horretan, gai izan beharko genuke sortze eta egitearen teoria, artelanaren interpretazioan oinarriturik dagoen beste teoria mota batetik bereizteko. Geuk, hemen, arte eraikuntza eta produkzioa izango genuke aztergai. Hori dela eta, batez ere beharko genukeen teoria lehenengoa litzateke, sortze eta eraikitzearena hain zuzen ere, eta ez hainbeste ulertze eta interpretatzearena. Produkzioaren teoria batek edozein artelanaren eraikuntza arrazoiak ulertzen lagundu beharko liguke, eta teoria horren barne egon beharko lukete arrazoi horien ulermenerako gai, tresna edo bitarteko oro: besteak beste, ideia, nahi eta kontzeptuen saila, materialen ezagutza, prozeduren eremua, eta batez ere, horiek guztiak barnebiltzen dituen arte teknika. Eta horrela ulertutako arte baten irakaskuntza bada helburua, erabiliko den edozein metodologiak praktikan oinarritu beharko du.

Arteak gizakion irudikapenak eta sinboloak berritzeko balio izan du. Haien iraunkortasunean etenaldiak sortzeko balio izan du eta, bere neurrian, oraindik ere balio du. Hau da, kultur irudikapenen izaerak iraun-

kortasunarekin zerikusia du. Hori kausetik ihes egiteko beharrezko dugu, baina tarteka horixe aldatu eta gainditu beharra ere bestea bezain oinarritzko zaigu. Arterari dagokionez, bere praktikak aldaketarako erresistentzia hori seinalatu eta ikustarazte moduko jarduera izatea du gauza interesgarri; izan ere, materialaren aldaketarako berezko erresistentzia, irudikapen baten barruan jarraitzeko inertzia hori, gainditu beharra legoke. Gainditu beharko genituzke oleo eta hariaren erresistentzia edo, kasua balitz, baita *Todo a 100*-etik letorkeen objektuarena, edo autore-joinu figura konbentzionalarena ere. Praktikak dakarren esperientzia zuzena eta harreman mota horrelako arazoei aurre egiteko tresna ezin hobea litzateke, aipatutako inertzia-konbentzioak hausteko tresna ezin hobea. Arazoa orokorrean, nahiak eta kontzeptuak direla medio, materiak zentzu aldaketari kontrajartzen dion erresistentzia hautsiko duten prozedurak bilatzean datza. Bitarte-etenaren eraikitzen duen prozedura bat bilatzean.

Alfred Hitchcocken adibidea erabilitakoan esaten genuena errepikatuz, esan genezake arte teknika prozedurak asmatzean datzala. Hau (eta honela) esanez, arte egiteko era bat azalduko litzateke: eraikuntza-arrazoiek eskatuko luketen jokabide jakin batean oinarritutako egintza modu bat. Aipatutako jokabide jakin horrek, kontraesankor badirudi ere, zehaztasuna eta jariakortasuna bateratu behar ditu; edo asetasuna, erriadikaltasuna eta ordena; sentikorra dena, sentsazioa eta kontzeptua...

Zentzu honetan, arte teknika ez da berez, noski, helburua. Teknika horren bitartez aztergai genukeena adierazi nahia da, baina adierazte hori teknikaren bidez bakarrik gertatuko dela ulertuaz. Eta arte teknikak zein materia, kontzeptu edo ideiarekin lan egiten duen eta nola diharduen jakitea izango litzateke kontua. Adierazi nahia teknika desiratzaila bilakatzea izango litzateke helburua. Arteak zentzudun gertatzearekin zerikusia izan beharko luke. Zentzudun izate hori, gizakiok desiratutako eta behar izandako bitarte izaeran aurkitu beharko litzateke. Hau da, beharrezko sentitu behar den bitarte-eten izaeran. Seriotasuna edo sakontasuna ezezik, eskandaloa, jolasa edo hutsal-keria ere izan liteke helburu (Warhol adibide), eta hori ez litzateke arazoa izango. Baina iheskor egiten zaizkigun gertaera neekiko, garrantzitsua den guztiarekiko harreman bat eduki beharko du (hutsune eta behar gisa sentitzen denarekiko harremana, azken finean).

Honelako bitarte beharra dela eta, metodologikoki, adierazi nahi den gai ororen edo desio objektu edozeinen isolatze prozesu bat planteatu beharko litzateke. Isolatzea, alde sumagarri eta interpretagarrien eraldaketarekin harremanetan legoke. Alegia, artearen bitarte-eten izaerarekin, ezberdin ikuste, sentitze eta zentzudun izate baten beharrekin erlazioan. Isolatze prozesu horretan artistak lehengai bezala erabil ditzakeen objektu, irudi edo materia arruntek berez ez dutela ezer ere irudikatzen jakin beharko luke. Hobeto esanda, esanahi ugari izan dezaketela jakin beharko luke (horietako

asko imajinatu ezin daitezkeelarik); ondorioz, horietako edozein aukeratzekotan adiera posible horiek guztiak hartu beharko litzuzke kontuan (ezagunak eta ezezagunak), eta ez bakar bat. Isolatzea (zentzua artean signifikantza gisa zehazten dela ahaztu gabe) beste zentzu posible baten eraikuntzaren aurreneko urratsa litzateke: aurpegi bat mihisean margotzen hasteak, pertzepzio arruntaren jarraitkortasunetik ateratzeak (haragizko aurpegia oleozkoa bihurtzeak), ez du jadanik artea sortu, baina lehenengo pausu bat izan daiteke.

Isolamenduaren bidez arte irudikapen eraginkor batera iristeko, zerbait desestali, erakutsi, sortu edo eraiki beharko litzateke. Irudikapen horren eraginkortasuna zentzua- ren berrikuntzaren efektuari esker gertatuko da. Eraikitze horretan, noizbait ezarritako esanahiek bazterten duten zentzuen parte batzuk berreskura litzateke. Baztertutakoak, irudikaezinak, zentzugabekiak edo kaosak emango ligukete, ordena arruntarekiko eraikitze lana eta konposaketa dela medio, zentzu berri baten (edo sentsazio multzo konposatu berri baten) aukera. Kaosarekin, zentzugabekiarekin harreman estuak izatearen ondorioz erabat arautu ezin daitekeen eratorrera horretan gertatu beharrekoa teknikaren zehaztasunak ahalbidetuko lukeen gauzatze eta mugatze prozesu bat izango litzateke. Argi geratu behar baitu helburua ez dela gizartearen nahiz subjektuaren kezak edo egonezinak besterik gabe plazaratzea, pertzeptu eta afektuak sortzearen bidez bitarte-etenak eraikitzea baizik. Eta hori, *esanahi plus* bat lortzea helburu izanik, signifikantza deskribatzerakoan aipatutako zeinuaren gaizkizatearen bitartez. Hau guztia gerta dadin formalismo eta estilo faltsu bat hartzearen hutsaltasunean ez erortzea izango litzateke erroka, eta era berean lanerako erabilgarria den modu eta metodo bat erakustea. Diziplinen hierarkia eta erabateko baliagarritasuna kolokan dagoen garai honetan, prozeduren balioa behar partikularren arabera neurtu, aukeratu eta erabiltzea besterik ez dagoela irudituko litzaziguke; ezin esango litzateke eraginkorra zein den gehiago ala gutxiago. Hori bai, prozedura bakoitzak lorpen eremu jakin eta mugatua du; prozedura bat (eta bakoitza) gauza batzuetarako baliozkoa da, beste batzuetarako desegokia. Hau dela eta, arte teknikak prozedurak aukeratzeko jakitearekin izango luke zerikusia.

Eta arteak, behar pribatu batzuei erantzuteko baino balio gehiagorik ez badu ere, horrelako beharren garrantzia erakutsiko liguke; horretan, garrantzi sinboliko bat izaten jarraituko luke. Gaur egun, artea balioren bat (pribatua nahiz bestelakoa) izate horrekin erlazionatuta legokeela esango genuke. Zerbaiterako balio izatearekin, norbaitentzat balio izatearekin. ■

PEIO MITXELENA *Artista eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako fakultateko irakaslea. Donostian bizi da.*

IÑAKI IMAZ *Margolaria eta Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako fakultateko irakaslea. Donostian bizi da.*

O H A R R A K E T A E R R E F E R E N T Z I A K

- 1 Afektu eta pertzeptu kontzeptuak, arte objektuaren nolokotasuna argitzeko erabiltzen dituzte Deleuze eta Guattarik. Bi ideia horiek, artelanaren berezko burujabetasuna ulertarazten digute. Pertzeptuak ez dira pertzepzioak; afektuak ez dira sentimendu edo afekzioak: edozein bizipen partikularra gaizkizateen dute eta nolabait esatearen, gizakiaren egonean existitzen dira: "Se pinta, se esculpe, se compone, se escribe con sensaciones. Se pintan, se esculpen, se componen, se escriben sensaciones. Las sensaciones como perceptos no son percepciones que remitirían a un objeto (referencia): si a algo se parecen, es por un parecido producido por sus propios medios, y la sonrisa en el lienzo está hecha únicamente con colores, trazos, sombra y luz. Pues si la similitud puede convertirse en una obsesión para la obra de arte, es porque la sensación sólo se refiere a su material: es el percepto o el afecto del propio material, la sonrisa de óleo, el ademán de terracota, el impulso de metal, lo achaparrado de la piedra románica y lo elevado de la piedra gótica." DELEUZE, G. ; GUATTARI, F. *¿Qué es la filosofía?* Barcelona : Anagrama, 1993. 167 orr. eta Mz. Rubio, Makuso, Tobar-Arbulu, Rz. Bornaetxea, Alvite, Zapiain, Carbonell, Eizagirre, Urdanibia, Portugal, Agirre, Foucault, Deleuze. *Erresistentziaren pentsamendua*. Besatari, 1998. 114 orr.
- 2 BARTHES, R. *Lo obvio y lo obtuso: imágenes, gestos, voces*. Barcelona : Paidós, 1986, 305. orr.
- 3 Derridak tonuaz hitz egiten du. Testu batean esanahi, tesi, gai edo edukia baino garrantzitsuagoa denaz, alegia. BRUNETE, P. ; WILLS, D. "Las artes espaciales. Una entrevista con Jacques Derrida (y 2)" *Acción paralela* aldizkaria. 2 zenb. San Lorenzo del Escorial, 1996, 4-7. orr.
- 4 "Ezin da objektu estetikorik izan ulermen saiakeratik erabat kanpo dagoena". Barthesek dioen bezala: "Zentzua erraz sor daiteke, masa-kultura osoak egunean zehar egiten du; zentzua esekitzea askoz ere lan zailagoa da; nahi izan ezker, 'arte' bat da; baina zentzua 'akabatzea' proiektu bat da, bere ezinezkotasunari proportzionala". MENKE, C. *La soberanía del arte. La experiencia estética según Adorno y Derrida*. Madrid : Visor, 1997, 83. orr.
- 5 Lawrencek poesiaren zeregina adieraziko zukeen zulatutako aterki baten metafora sortzen du: gizakiok, kausetik babesten gaituen aterki bat egiten dugu. Azpialdean gure konbentzio eta usteak irudikatzen ditugu. Olerkariak, berriz, aterkia zulatu egiten du kaosa ikus eta erakus dadin. DELEUZE, G. ; GUATTARI, F. *¿Qué es la filosofía?* Barcelona : Anagrama, 1993, 204-205. orr.
- 6 *Blackmail* (La muchacha de Londres). 1929. Bere lehenengo soinudun filma da.